

HAU . . . HAU



Nork esango zien argazkian ageri direnei beraiek sortutako konpartsak, 15 urte pasatu eta gero, bizirik iraungo zuela? Esku artean duzun HAU...HAU berezi honetan 15 urte hauetako hainbat gertaera gogorarazten ditugu. Lehenengo aldiz, HAU...HAUK kutsu alaia baztertu eta apur bat melankoliko jarriko da, baina ez kezkatu. Batzutan, aurrera joateko, atzera begiratu behar da, honaino nola heldu garen ikusteko. Mila esker HAU PITTU HAUn partaide izan zareten guztiei. 15. urteurrena hasi berria da, goza dezagun beraz.



EUSKARAZ IDATZITAKO HISTORIA

Duela hamabost urte, euskararen alorrean lanean zebilen jende talde batek konpartsa euskaldun elebakarra sortzea erabaki zuen. Horrelakoxe sinplea, eta horrelakoxe zaila. 1987ko hasieran eman ziren lehen urratsak, helburu argi batekin: Bilboko jaietako esparru txiki bezain garrantzitsuan euskarari leku ematea. Gaur egun, hiru konpartsa euskaldun daudelarik, arrunta iruditzen zaigun zerbait, baina garai hartan askorentzat pentsaezina.

Ez zen erronka samurra, berehala ikusi zenez. Konpartsa sortzeko behar ziren 50 lagunak elkartzeko asmoz, afaria antolatu zen Deustun, Baina kopuru haren erdia ere ez zen joan. Edonola ere, erabakia tinko hartuta zegoen, eta ihauterietako jaitiera iritsi orduko han zen konpartsa berria. Gerora ohitura bilakatuko zen eran, arrakasta handirik gabe hartu zen parte ihauterietan, baina urratsik zailena emanda zegoen.

Ondoren, hainbat bilera egin ziren, eta haietako batean aukeratu zuten Hau Pittu Hau izena, zerrenda luze batetik. Jaia adierazten duen pertsonaia nahi zuten, eta Zuberoako Pittu hautatu zuten azkenik. Bitxikeria gisa, baziren konpartsari erdarazko izena ezarri nahi izan ziotenak, izen euskalduna edukita erdara hutsez jarduten zuten konpartsen alderantzizkoa egiteko. Konpartsaren jantzia ere Pitturengan oinarritu zen. Hari buruzko komiki batean praka grisak, jaka gorria eta kapela beltza zeramatzala ikusi eta konpartsakideak modu berean janztea erabaki zen.

Lehenengo Aste Nagusia

Kontuak kontu, hileak pasa eta han zen Aste Nagusia, konpartsa berriarentzat lehenbizikoa. Gutxieneko jende kopurura ozta-ozta iritsita, gogorra eta polita izan zen aldi berean; jende gutxi zegoen lan asko egiteko, eta ia-ia txosnan bizi ziren. Norberak ekarritakoaz bazkaltzen zuten, eta sarritan txosnan

lo egiten zuten. Garai hartako Hau Pittu Hautarrek gogoratzen dutenez, horrek oso giro berezia sortu zuen beraiengan. Benetan lagun taldea zen konpartsa.

Aste Nagusia hasi baino lehenago, bozketaz, gaur egun oraindik hizpide den erabakia hartu zen: alkoholdun edaririk ez saltzea. Nabartzeko, esan dezagun sagardoa eta garagardoa bazeudela, agian edari naturalak izatearren. Izan ere, txosna naturista, barazkijalea (edo nahi duzuen bezala esan) zen hura. Bokatak ere, bejetalak edo patata tortillazkoak baino ez ziren. Kontuak kontu, Aste Nagusi arrakastatsua izan zen arlo ekonomikoan. Bestek beste, urte luzez iraun duen egoitza erosteko adina etekin lortu zen.

Euskaldunon txosnan, euskaraz

Hau Pittu Hau txosnako zerbitzari eta bezeroen arteko harremanak euskaraz izatea bultzatu zuen. Gorabehera eta zailtasunez mantendu den ezaugarria da, baina

Epaltza-ren Alargunaren kalean baizik). Hainbat urte iraun zuen hiztegitxoaren ohitura harek.

Bezeroei ezezik, beste batzuei ere eskatu zitzairen euskaraz bizitzeko eskubidea errespetatzea. Hornitzaileei euskarazko fakturak eskatu zitzaizkien, borroka luze eta latz baten lehen urratsak emanaz. Beste horrenbeste gertatu zen konpartsen koordinakundean. Hau Pittu Hau euskaraz baino ez zuten egiten bileretan (inor asaldatu gabe askok gazteleraz baino egiten ez zuten bezala), eta denetariko erreakzioak jaso zituen, baita aktak euskaraz egotea eskatu zenean ere.

Zenbait aldaketa

Denborak aurrera egin zuen eta hala, hurrengo urtea iritsi zen. Aldaketa garaia izan zen konpartsan; jende berria sartu eta hainbat erabaki hartu ziren. Batetik, txosna konbentzionalagoa izatea Aste Nagusian. Alkohola eta denetariko ogitartekoak saltzea, alegia. Gainontzean, lana erruz egin behar izan zuten erduko konpartsakideek urte hartan ere, artean gutxi ziren eta. Ihauterietan zalaparta handirik parte hartu eta Aste Nagusia gorabehera handirik gabe joan zen. Hala ere, euskararen arloan aurrerapausu batzuk nabarmendu behar dira: faktura batzuk behintzat elebidun jasotzen hasi ziren.

1989, konpartsaren hirugarren urtea, txosna Epaltzaren Alargunean ipini zen azkenekoa izan zen. Betiko kontuekin jarraitzen zuten konpartsak: oso jende gutxi eta nahi adina beharra. Eta euskaldunon eskubideen aldeko ekimenek jarraitu egiten



Hasierako urteetan, jaka gorria eta guzti



Konpartsa osoa Uribitarten

zuten. Apurka-apurka, banatzaileei eta gainerako konpartsei ezezik, udal-txeari ere presio egiten hasi zitzaion (koordinakundearen bitartez), jaietan euskarari presentzia duinagoa eman zieziaion. Horrela lortu zen, esaterako, euskarazko ekitaldi-tarako gotorlekua: Santiago plaza.

Hurrengo urtean txosna gaur egun egoten den ingurura eraman zen. Etorkizunean oparoak izango ziren harreman eta elkarlanen hazia ereinda zegoen, baina garai latzak ziren artean: jende gutxiegi zebilen konpartsan. 1991 an, urtebete geroago, kartelak eta guzti ipini ziren jende berria hartzeko xedez; gazte batzuk sartu ziren, baina lau urte lehenago eskatzen zizkieten 50 laguneko kopurua betetzera ere ez ziren ailegatu. Horietako bati egokitu zitzaion, hain zuzen, txupinera izatea, euskara hutsez jardun zuen lehena.

Guggenheimen kontra

1992 urte berezi hartako ihauterietan, Guggenheim egitasmoaren aurkako karroza egin zen (ondoren ere, jaitsierak kritika soziala egiteko baliatuko ziren maiz). Nahiko dotore atera zen, ihauteriak konpartsa-aren "espezialitatea" ez izan arren. Aste Nagusian, aurreko urtean bezala, txosna Eguzkizaleak-ekin batera ipini zen (txosna bi, erdian sukaldea eta haren

ganean pantaila erraldoia, bideoak emateko). Azkenean, Olinpiadak, Expo eta abar igaro eta bizirik jarraitu genuen, baina Guggenheim hor dago.

Horixe izan zen, hain justu, hurrengo urtean sortu zen konpartsa-aren izena: Hor Dago. Oso indartsu jaio zen, jende mordo batekin eta gauzak oso argi zituela, Hau Pittu Hau oso ahul zebilen garai batean. Askok uste zuten konpartsa zaharra desagertu eta denak berrian sartuko zirela; azkenean ez zen horrelakorik izan, baina ezin uka Hor Dagoren sorrerak eta geroko bilakabideak Hau Pittu Haurengan izandako eragina. Gauza askotarako, Hau Pittu Hau bere buruari so egin zion ispilua izan zen konpartsa sortu berria.

HPH kinka larrian

Edozein kasutan, oso Aste Nagusi gogorra izan zen 1993koa, eta batzutan konpartsa desagertzeko zorian zegoela ematen zuen. Hurrengo urteko (1994) ihauterietan, bere kabuz ateratzeko gai ere ez zen izan, eta Hor Dagorekin batera egin behar izan zen jaitsiera. Aste Nagusia hurbiltzen ari zen eta gaixoak itxura eskasa zuen. Azkenik, urte batzuk lehenago bezala, propaganda kanpaina egin zen jendea erakartzeko, emaitza ezin hobeeekin.

Aste Nagusia iritsi eta bat-batean, 30 lagun sartu ziren konpartsa-aren, gehienak

S a n t u t x u k o a k . Konpartsa-aren etorkizuna ziurtatuta zegoen. Aldi berean, bigarren urtetik konpartsa-aren ardura zeramatenek utzi egin zuten; jendea bazegoen baina esperientziarik ez. Urte hartan, gainera, janzkera aldatu zen: jaka gorriaren ordeztu, kamiseta zuria. Dena den, gutxi iraun zuen uniforme harek. Hurrengo urtean, ezagunagoa dugun kamiseta morea erabiltzen hasi zen.

1995 ahaztezina

Indibeti, marrazkiloa jaio, elefanteak bizitza publikoan agertu... horiek guztiak eta gehiago 1995ean izan ziren, bai. Urtea hasteko, ihauteriak; berriz ere Hau Pittu Hau bere kontura egin behar zuen jaitsiera, baina sekulako euri jasa izan zen eta dena bertan behera geratu zen. Han zeuden batzuek diotenez, eskerrak hala izan zela, bestela ez ziraketelako jaitsiera hartatik bizirik irtengo. Banderak espainiar erraldoia, jendea goardia zibilez eta

Hamabost urte zer diren

Non zeunden zu duela hamabost urte? Nolakoak zinen? Denbora igaro da, eh? Hau Pittu Hau jaio zenetik munduan izandako zenbait gertakari eta aldaketaren bildumatxoa egin dugu, gaurko gizarte moderno honetan hamabost urteko benetan duten esanahiaz jabetzeko.

Une hauetan bere gorritasunik latzena erakusten ari zaigun Palestina eta Israelen arteko gatazka gogorra ekarrita, ba al dakizu lehenengo intifada Hau Pittu Hau sortu zen urte berean hasi zela (bien arteko inongo loturarik gabe, esan dezagun badaezpada)? Eta Berlingo harresi ezagunak zutik zirauela artean? Hau Pittu Hau sortu zenean, hiru urte falta ziren Golkoko gerrarako, bost Bartzelonako Joko Olinpiko eta 92aren inguruko "txapa" izugarriak, zazpi iraultza zapatistaren hasierarako... Bill Clinton eta Boris Yeltsin inork ez zituen ezagutzen eta Europako mapa politikoak gaur baino askoz kolore gutxiago zituen.

Eta, nork zekien zer zen sakeleko telefonoa 1987an? Eta Internet? Eta klonazioa? Eta diseinuzko drogak? Eta talk showak? Eta «Anai handia»-ren tankerakoak? Are gehiago, telebista pribatuak eta satellite bidezkoak agertuko zirenik nork igarriko ote zuen? Ba al zeukan zuetako baten batek bideojokorik etxean (ziztrinena sikiera), 1987an? Badakizu nor izan zen Athletice-aren entrenatzailea urte hartan? Gauza ugari aldatu da munduan, bistan denez. Irauten duen gutxienetakoa Juan Pablo II dela apustu egingo genuke.



Negutegi garaiko txosna



abar jantzita, megafoniatik "En el país vascongado hemos de hablar en español" abestia etengabe (Oskorriren "Euskal Herrian euskaraz" en musikaz)... Karroza traktorea zen, eta ugazabak ez zuen eraman nahi. Baina azkenean, esan bezala, ez zen jaitsierarik egin eta kontua nola amaituko zatekeen jakin gabe geratu gara.

Aste Nagusia baino lehenago, konpartsaren bilakabidean garrantzi handia izango zuen gertakaria izan zen: Dimako Indibeti baserrira eginiko irtenaldia. Mendian galduta, argindarrik gabe, bost egun igaro zituen han konpartsakide talde handi batek. Giro ezin hobean, gaur egun indarrean dirauten erabakiak hartu ziren. Edozein kasutan, urte hartako Aste Nagusian egindako gauza gehienak bertan asmatu ziren; eta, Hau Pittu Haun izan diren gehien esanetan, hura izan zen inoizko Aste Nagusirik hoberena.

Indibetin, lehenik eta behin, kamiseta morea janztea eta konpartsaren maskota marrazkiloa izatea erabaki zen. Marrazkiloa urte hartako agenda batean aurkitu eta gero

aukeratu zuten. Bigarrenik, konpartsaren egitura asanblearioa finkatu zen. Hirugarrenik, autokritika zorrotza egin eta konpartsaren zeregina biziraute hutsetik haratago eraman zen: konpartsak bazuen indar nahikoa gauzak sortzeko, asmatzeko. Aurrera egiteko garaia zen, eta Indibetin "pilak" jarri ziren helburu horretarako bidean.

Aste Nagusia '95: ipurdiak airean

Lehenbiziko aldiz Hau Pittu Hauk 100 kide baino gehiago zituen. Aste Nagusi polita zetorren eta, hasteko, pregoilariari ipurdia erakutsi zitzaion. Konpartsak urteak zeramatzen erdarazko pregoiak kritikakatu eta urte hartan kritika nabarmenagoa egin nahi izan zen. Lau konpartsakideren ipurdietan EUSKARAZ hitza margotu eta pregoia hasi orduko, buelta erdi eman, prakak jaitsi eta euskararen aldeko aldarrikapena egin zuen Hau Pittu Hauk, inoizko pankartarik bitxienean. Indibetiko



Hamargarren urteurreneko txosna

gauetan ekoiztutako ideietako bat zen.

Elefante ospetsua urte hartan atera zen plazara. Ihauterietako jaitsieran Hor Dagok erabilitako bietatik (zirkoa antzestu zuten), bat Hau Pittu Hauri utzi zioten. Baina ez ziren oinarri baten gainean geldirik uztera mugatu; tarteka, ura botatzen zuen tronpatik, parean zegoena blaituz. Era guztietako errakzioak egon ziren, gehienak onak, are esker onekoak bero handieneko uneetan, baina zalantzarik gabe hizpide izan zen elefantea urte hartan... gerokoenean bezalaxe.

Oro har, jaietan zehar izugarrizko partaidetza izan zuten konpartsaren ekitaldi guztiek. Ahuldade urteak igaro berriak eta askoren gogoan zeuden artean, baina ezin uka hura konpartsa "berria" zela, guztiz indarberritutakoa. Garai onak Hau Pittu Haurentzat.

Ihauteri duinak... behingoz

Hurrengo urtea maila berean hasi zen. Lehenbiziko aldiz, konpartsak neurria eman zuen ihauterietan, epaitegietan euskarak jasaten duen bazterkerta salatuz. Ez zen hasteko modu txarra, eta Aste Nagusia iritsi orduko, txosnaren muntaian urrats bat gehiago eman nahi izan zuen zegoeneko bere burua

konpartsa handitzat zuen Hau Pittu Hauk. Ordura arteko "negutegia" baztertu eta mekanotubozko txosna handia ipini zen. Izan ere, txosna gero eta handiago eta ikusgarriagoak jartzeko joera (heine batean Udaletxeak bultzatuta) etengabea izan da Aste Nagusiaren historian, konpartsa guztien aldetik.

Horrez gain, eta aurreko urteko euforiaren ostean espero zitekeenez, 1996koak trantsiziozko jaiak izan ziren. Indibetikoa errepikatu zen, baina ez zen, ezin zitekeen, gauza bera izan, eta batzutan gehiegizko proiektuetan sartu zen konpartsa. Horietariko batek, hala ere, iraupena izan zuen urte batzuez: Hau...Hau aldizkaria. Indarra bazegoen, baina sarritan antolakuntza falta igertzen zen.

Hamargarren urteurrena, eta erreleboa

1997an hamar urte bete zituen konpartsak, eta nolabait ospatu beharra zegoen. Astelehenean, ohituraz konpartsaren bazkaria eta bertsotrikikalejira egiten diren egunean, urtemugako ospakizunak egin ziren. Besteak beste, egun hartan jaio ziren berriki berragertutako konpartsero sariak. Gainerakoan ere Aste Nagusi ona izan zen



Txosna montatzeak beti du arriskurik



ASTE NAGUSIARI HASERA EMAN EUSKARAREN TXALUPAN

zitekeen. Txosna jartzeko, txandak betetzeko... arazoak izan ziren. Tarteka, oroitzeko moduko jentilatasunen bat izaten zen, bertso trikalajirara eramandako gudi erraldoiarena bezala, azken unean eta txosnari lapurtutako piezez egina; baina oro har hainbeste jenderen indarra bideratzeko modu egokiagoen hutsunea

Aspergarriagoa agian? Baliteke, baina horrek ez zuen eragotzi jaiak oso giro onean pasa-tzea, 140 lagun ingururen partaidetzaz. Halakorik imajinatuko ote zuten hamabi urte lehenago Deustun afaltzeko bildutako hogeia lagun haiek? Esan dezagun bide batez, marrazkilo eta elefantearen arteko liskarrak puri-purian egon zirela urte hartan, gehiegi sakondu gabe. Ez da gure asmoa orrialde hauek sua areagotzeko baliatzea, inondik inora.



entzun ezazue!
Konpartsa euskaldun bat
egingo dugu, festetan eta
abarretan geure
hiekuntzez ondo
pasateko

Konpartsa
7.30
GAZTETXEN
OSTEGUNEAN 28
zatoz konpartsa-aren jaiotzara

konpartsa-arentzat, urte bi lehenagoko arrakasta berreskuratuz. Gainbehera baten hasiera izan zen, halaber. Urte luzez konpartsan pisu handia izandako kide batzuk, apurka-apurka, bizitzak eraginda, aldunduz zihoazen. Erreleborako garaia zen.

Hala ere, hurrengo urteko ihauterietan maila ona erakutsi zen berriro, telebistaren menpeko gizar-tearen parodiaz. Handik gutxira, estraineiko aldiz, sagardotegira joateko autobusa antolatu zen beste konpartsa batzuekin batera. Baina Aste Nagusia iritsita, garai bateko irudimen anarkikoaz anarkia asko eta irudimen eskasa geratzen zirela soma

begibistakoa zen. Horregatik, Aste Nagusiaren ostean, PBB sortu zen.

Pisu Buru Batzarra

Izen xelebrea eman zitzaion batere helburu xelebrea ez zeukan organo sortu berriari. Zuzendaritza baten funtzioa betetzeko sortu zen PBB, konpartsa-aren izaera asanblearioa baztertu gabe. Izan ere, asanbladetan onartu ostean desordenaren linboan galtzen ziren proiektu eta ideiei aterabide hobea emateko eratu zen. Antolakuntza faltaren orde, kontrola. Prezioa ordaindu behar izan zen, jakina: iraganean hain emankor izan zen bapatekotasuna galtzea.

Gauzak horrela, 1998 heldu zitzaigun. Urte hartako ihauterietarako, eta ondoren izan diren guztietarako, planteamendu berria egin zen: burua gehiegi ez haustea. Karrozarik gabe, aparteko konturik gabe, ez arre eta ez ixo.

Denak pozik hala ere.

Aste Nagusia bestelako kontua izan zen. Berrantolakuntzaren fruituak jaso ziren, eta konpartsa-aren funtzionamendua primerakoa izan zen. Dena aurreikusita zegoen eta ezerk ez zuen hutsik egin.

Kaiku eta XXI mendea

2000 garrenarekin batera, konpartsa-ak taberna hartu zuen Santutxun: Kaiku ezaguna. Dagoeneko bertan behera geratutako proiektua da, dakigunez, baina zabalik iraun zuen urte eta erdian zenbait jai gogoangarriren gune eta lekuko isil izan zen. 80ko hamarkada dela, akelarrea dela, ska reggae jai dela... Eta honezkero historiarik ez, gaurko egunez ari gara berbetan. Azken Aste Nagusi bietan konpartsa-ak maila ona eman du, jende kopuru politaren partaidetzaz eta gauzak garaiz egiteko orduan PBBren lana igerri delarik. Ihauterietan, aldiz, 1999an hartutakoa bidetari eutsi zaio, eta gero eta testimonialagoa da konpartsa-aren presentzia. Ez dugu gehiagorik

esango, oraindik ondo gogoratuko zarete eta.

Hamabost urteren ostean, Hau Pittu Hau euskararen aldeko jardunean jarraitzen du. Tamalez, ez dira arrazoiak agortu. Dena dela, dagoeneko euskara hutszez funtzionatzen duten hiru konpartsa daude Bilbon. Marka ona, baina hobetu beharrekoa noski. Hau Pittu Hauri dagokionez, egonkortu egin da erabat. Beterano bilakatuta dagoeneko, konpartsa-ak etorkizunari begiratzen dio, hogeita hamar lagun baino ez zireneko garai latzak gogoan baina jadanik oso urrutu, eta beti hazteko asmoz. Ideietan, eta baita jendeetan ere, zertarako ukatu. Zu zeu izan zaitezke, nahi izanez gero, hurrengo hamabost urteetako kronikaren protagonistetako bat. Zergatik ez?

ZEREN ZAI ZAUDETE

HAU PITTU HAU

KONPARTSAKO KIDE IZATEKO?

ZATOZTE!

GURE TELEFONOA: 416 27 30




Euskararen aldeko aldarrikapena, beti presente



ASTE NAGUSIA, BEDERATZI EGUNEKO OASIA

Hara, bederatzi, bederatzi... Konpartsa batentzat (edo konpartsa-kideetako batzuentzat behintzat; eskakeoa beti egon da-eta) txupinazoa baino askoz lehenago hasten da Aste Nagusia, eta jaiaren amaieraren ondoren beste bizpahiru egunez luzatu. Dena antolatu behar da, txosna montatu, edari eta janariak eskatu, txandak bete, bazkariak prestatu, kontzertuak, kamisetak... Bati baino gehiagori telefono itxurako protesia hazten zaio eskuan, urtero, dagoeneko Aste Nagusirako falta diren egunak zenba-tzen hasten den garai horretan.

Eta gero... Gero bai, bederatzi egun magikoak. Hori bai, aldaketak izan dira Aste Nagusian Hau Pittu Hauren sorreratik hona. Duela hamabost urte, esate baterako, txupinerak ez

zuen inongo protagonismorik jaian. Egutero txupina bota eta kitto. Baina "erantzukizun" hori Hau Pittu Hauri egokitu zitzaion urtean, pertso-naiari agenda bat ematea (azken batean, benetako edukia) erabaki zen, eta baita udaletxeak onartzea lortu ere. 1991garren urtea zen.

Bertsotrikikalejira ere azken hamabost urteotako asmakizuna da. 1993koa, hain zuzen. Urte batzuk lehenagokoa da astele-henean bazkaria egiteko ohitura. Eta bazkari horietako baten bazkalostean, konpartsaen hamargarren urteurrenekoan hain zuzen ere, konpartsero sariak sortu ziren, Hau Pittu Hauren "Oskarrak". Egia esan, oso bizitza laburra izan zuten hasiera batean, hurrengo urtean desagertu



Gaueko txandak: lan eskerga baina giro ona

egin baitziren, baina 2000 garrenean berriz itzuli zitzaizkigun; dirudienez, luze irauteko asmoz.

Euskaldunon konpartsa ari garelarik, ezin aipatzeke utzi jaiaren euskararen presentzia areagotzeko hamabost urteotan egin diren ahalegin etengabeak. Hau Pittu Hau sortu eta urte gutxira, konpartsek jaigune erabat euskalduna

jaiotzea lortu zuten: Santiago plaza. Horrekin batera, garai bertsuan, bertsobazkaria sortu zen... Ikus daitekeenez, Hau Pittu Hau lehen urratsak eman zituen garaia alde handia zeukan gaur arrunta iruditzen zaigun Aste Nagusiarekiko. Zer izango ote da beste hamabost urte barru?

Txosnaren montaiia eta beste ametsgaizto batzuk

15 urtetan era guzti-etako txosnak eduki ditu Hau Pittu Hauk, mekanotubozkoak, negutegiak, karpa... denetarik. Lehenbizikoak tubo-grapakoak ziren, izen hobeagoren faltan. Bost urtez iraun zuten hodi herdoildu eta okerrez eginiko txosna harek. Mekanotuboaren montaiia bizpahiru egunez luzatzen zen, hain zen korapilatsua: zuzendu hodi hau, ondo ipini grapa hura... Gaur egungoa baino txikiagoa zen (garai hartan denak ziren gaur egungoak baino txikiagoak, ez soilik Hau Pittu Haurena), baina meritu handikoa, dena esan beharra dago.

Bigarren etapa negutegi estiloko txosnei dagokie. Montatzeko errazagoa zen (ez gehiegi baina tira), baina bazuen bitxikeria bat: egitura osoa egin ostean,

metro bat altxatu eta zutabetxo batzuen gainean ipini behar zen. Makinarik gabe, noski, une hartan bertan zeudenen indar hutsez. Hala ere ez zen hildakorik izan, guk dakigularik.

Konpartsa hazi ahala txosnak ere handiagoa behar zuen. Merke, zer esanik ez. Azkenik enpresa txiki eta bitxi bat agertu zen ez dakigu nondik, Goirimendi. Urte biz txosna egin zuten, beraiek montatu eta guzti. Lehenengo urtean langile faltan, bigarrenean langileak bai baina txosnarako material nahikorik ez... Beti berandu eta doidoi ipintzen zen txosna. Hirugarren urterako beste enpresa batek hartu

zuen lekukoa, baina ez zen gauza bera izan eta konpartsaen biho-tzak emozio gordinen gosez geratu zen, montaiari dago-kionez behinik-behin.

Azkenik, txosnaren kokapenarekin zer ikusia duten zenbait arazok

bultzatuta, karpa estilorantz jo zuen konpartsa. Hau da, karpa ipini eta azpian mekanotubozko barru. Kitto. Ez dela hain ikusgarria? Egia, baina Aste Nagusiaren bezperan lasai baino lasaiago egin daiteke lo, behar guztiak eginda.



Non daude montalariak? Ezkutatuta?



ETA URTEAN ZEHAR.....ZER????

IHAUTERIAK, SANTOTOMASAK ... MUNDUA EZ DELAKO ABUZZTUAN AMAITZEN



A ze hirukotea!

Esan beharrik ez dago Aste Nagusia dela edozein konpartsak urtean zehar daukan zitarik garrantzitsuena. Alabaina, badaude sona eskasagoa duten baina partehartzea eskatzen duten beste batzuk. Horietan ere nabaritu da, nola ez, Hau Pittu Hauren presentzia, arrakasta handiagoz ala txikiagoz, baina beti zirikatzen.

Ihauteriak izan dira, ondo errotutako tradizio baten arabera, Hau Pittu Hauren deskalabrurik handienen unea eta gunea. Halabeharrez parte hartu behar da ihauterietan Aste Nagusian izateko eskubidea irabazi ahal izateko, eta ezinbestekotasun horrek mugatu du, hein handi batean, Hau Pittu Hauren jarduna ihauterietako jaitzieretan. Berandu, txarto eta inoiz ez. Horrela laburbil liteke konpartsaren palmaresa ihauterietako ekitaldiei dagokienez. Hala ere, badago salbuespenen bat edo beste, ez pentsa dena okerra denik.

Ihauteritako jaitzierarik duinenetakoa epaitegia irudikatu zenekoa izan zen, 1996an. Euskaldunontzako justiziarik eza salatu nahi izan zen, alegia, euskaldunok justiziaren aurrean pairatzen dugun eskubide zampaketa. Horretarako, karroza epaitegi bihurtu zen,

boterearen sinbologiaz betetako karroza gainera: eliza, militarrek eta jakina, epaileak. Inguruan erreprezioa (beltzez jantzitako pertsonaiak, ertzainen oso antzekoak) eta deabrutxo mozo-rroturiko euskaldunak. Basoko damaz jantzita, euskara bera ageritzen, ezer falta ez zedin.

Parte hartze galanta izan zen ihauteriahietan eta baita urte bi geroago komunikabideen salaketa egin zenekoetan ere. Telebista denok gurtzen dugun jainko gisa agertarazi nahi izan zen. Traperos de Emausetik hartutako telebista zaharrak erabili ziren horretarako, eta denak egoten ziren haiei begira, lelotuta lez. Egur emailleek

ere ez zuten hutsik egin. Hau Pittu Hauren jaitsierek, nola edo hala, beti islatzen zuten erreprezioa, garai hartan. Esan bezala, ihauteri bi haiek nahiko arrakastatsuak izan ziren, zentzu guztietan, Hau Pittu Haurentzat. Gainerakoetan, oro har, konpromezua bete besterik ez da egin (ez da gutxi hala ere).

Bada gauza gehiago. Santotomasetan, adibidez, konpartsak gero eta leku handiagoa eskuratzeko ahaleginean dabilta, eta Hau Pittu Hau ere hor izan da, antolatutako ekintzetan beti laguntzeko prest. Edo Konpartsero Egunean, edo konpartsak bere kabuz egiten dituen irteera, jaialdi eta abarretan... Badago, Aste Nagusiaz gain, euskaraz goatzeko eta lan egiteko aukerarik. Animateko al zara?



Benetan, mozorroa mamuarena zen eta ez Ku Kux Klan

KONPARTSARIK GABE ASTE NAGUSIRIK EZ

15 urtetako ibilbide honetan ez gara bakarrik egon, gurekin batera beste konpartsak egon dira lanean Bilbon Aste Nagusi herrikoi baten alde. Guk euskararen aldeko lana bultzatu dugun modu berdinean beste batzuek ekologismoa, feminismoa, gazte mugimendua, pre-soen eskubideen aldeko mugimendua, gizarte berdintasuna, antimilitarismoa, auzo lana, internazionalismoa eta abar bultzatu dituzte. Batzutan ondo moldatu gara, beste batzutan txarto, baina ezin ditugu 15 urte ospatu haiek gabe. Norbait aipatu gabe utzi gero barkatu, baina ulertuko duzuen moduan 15 urtetan jende askorekin eduki dugu harremana.

Konpartsaren batetik hasi behar baldin badugu, Eguzkizalek hasiko gara zantzarik gabe, beraiek egon dira gure ondoan 15 urte hauetan, edo hobeto esanda 15 urtez jasan gaituzte, Sonia, Alberto, Xabi, Lukas, Agus, Titxin, Eneko, Sergio, Inaxio, Uri eta abarri eskerrik handienak eta espero dezagun beste horrenbeste egotea elkarren ondoan. Bigarrena,

nola ezHor Dago, gure "alter ego", beraiek gure txantxak jasan dituzte eta guk beraienak baina beti izan dira erreferentzia guretzako (nahiz eta batzutan kontrako bidea

Satorrak, beti jaietarako prest, zintzoak eta benetan lagun onak, Lourdes eta bere ilobekin egundoko parrandak bota ditugulako. Txori Barrote ezin ahaztu, azkenean euskal txokoan buru belarri sartu

Kaskagorri, ez haserretu hainbeste gurekin, euskaltegira bidaltzen zaituztegunean asmo honez egiten baitugu, zuek ere eutsi gogor, txakurraren haginkadak bortitzak dira-eta. Kaixo, Pa...Ya, Kobetas Mendi... aurrera auzoetako borrokarekin eta gizarte kritikarekin.

Algarak euskararen aldeko lan izugarria betetzen du baita, ez da guk hartutako bidea baina guztiz zilegia da eta benetan seriotasunez betetzen duzue.

Txomin Barullo, Mamiki, Sin Kuartel, Bizizaleak, Mekaguen, Hontzak, zuetako asko hasieratik daramazue Aste Nagusian, segi Mari Jaia-ren eta gizarte hobeko baten alde lan egiten.

Adiskideak, Aixe Berri, Arrainak, Gogorregi, Intxausti, Irrintzi, Lehoiak, Moskotarrak, Pimpilinpauza, Tintigorri eta Uribarri, jaien beste ardatz batzuk jorratzen dituzue baina gustatuko litzaiguke euskara apur bat gehiago zainduko bazenute, dena den zuek ere gure kideak zarete.

Hainbeste eskerren ostean duela 15 urte Hau Pittu Hau-k egin zuen proposamen bat errepikatuko dugu: Bilboko Konpartsen barruko lana euskaraz izatea. Baietz beste 15 urte barrurako lortuta egon.

direnak, ez etsi zeren beraiek aske izan arte gu ez baikara aske izango.

Askapeñarekin batera hainbat aldiz antolatu izan ditugu bidaiak eta beraien sagardotegietako kronikekin barre galantak bota ditugu.

hartzeko izan). Gu bezala, euskaldun petoak dira eta muslari trebeak, agur bat elefanterentzat eta esaiozue ez kezkatzeko ipurdikoa erraz garbitzen delako. Hirugarren lekuan





HAU PITTU HAU 1987 - 2002 15 URTE EUSKARAZ 9





EUSKARA, HELBURU ETA TRESNA

Hau Pittu Hauk euskararen alde eginiko gauzarik garrantzitsuenak aukeratu behar bagenu, jaiotzea bera hautatuko genuke zalantzarik gabe. Aste Nagusian erdara erabat nagusi zen garaian (gaur ere hala da, baina ez horrenbeste), pentsaezinezko gertakaria izan zen konpartsa guztiz euskaldun baten sorrera, non eta gure Bilbo erdaldundu honetan. Alabaina, euskararen alde hitzez soilik ez, ekintzez ere jardun egingo zuela argi utzi zuen, hasiera-hasieratik, Hau Pittu Hauk.

Barne funtzionamendua euskara hutsezkoa izateaz gain, "euskaldunon konpartsa" deritzana bere

inguruan eragiten ahalegindu da, jaietako gainerako protagonistak euskararantz bultzatuz edo, kasurik okerrenetan, euskaraz bizi nahi dutenentzat (dugunontzat) gutxieneko begirunea eskatuz eta, maila batean, lortuz. Hala, txosnetako produktuen banatzaileei fakturak behintzat euskarazkoak izan zitezela eskatu zitzaizkien lehenbiziko egunetik; kontu sinplea zalantzarik gabe, baina bat baino gehiago asaldatu zuena (oraindik asaldatzen dira-eta!). Txosnan bertan ere, hiztegitxoak jartzen hasi ziren, erdaldunei gauzarik sinpleenak euskaraz esaten laguntzeko: edari eta janarien izenak, prezioak... Bezeroak eus-

karara "ekartzen" ere ahalegindu da Hau Pittu Hau, eskatzeko garaian euskara erabiltzera nolabait "behartuz". Lan horretan, noski, gorabehera ederrak izan dira, pertsona bakoitzak berezia eta desberdina delako, baina tira...

Ez hori soilik. Jaia bera euskalduntzen, edo euskararen presentzia areagotzen behinik-behin, urratsak eman dira. Euskarazko ekitaldi gehiago sartuz, euskal guneak sor zitezela bultzatuz... jai egitaraua egiteko ardura zutenei herri honen berezko hizkuntzarekiko ere ardura bazutela gogorarazten saiatu da Hau Pittu Hau. Eta ez Aste Nagusian soilik, baita urtean zehar ere gainerako ekimenetan ere.

Txupinazoa euskaraz

Aipatzekoa litzateke txupinera batek euskara hutsez eginiko lehenbiziko agerpen publikoa Hau Pittu Hauren eskutik etorri zela. Garai gogorak izan ziren haiek, txupinerarentzat batez ere. Txalotzekoa, beraz, konpartsak publikoki defendatutakoarekiko agertutako koherentzia, maila pertsonalean ondorio latz ugari ekarri bazituen ere. Urte batzuk geroago gauza bera gertatu zen Hor Dagorekin. Biek ala biek hamaika astakeria entzun behar izan zuten egokitu zitzaizkien Aste Nagusietako egunetan zehar.

Euskararen alde izandako ekintzetan ere laguntzeko prest izan da Hau Pittu Hau, bere indarren arabera. Ikastolen



Salaketa telefona? Alkate erdalduna dugu


jaietara bidaiak antolatuz, beste taldeek antolatuta euskararen alde egin diren mobilizazioetan parte hartuz, Bai Euskarari kanpainen parte hartuz... konpartsak modu askotara eman dio, ahal izan duen neurrian behintzat, bultzatutakoa gure hizkuntzari.

Azkenik, jaien arima diren konpartsak aipatu behar derrigorrez. Bilbon jaiak euskalduntzeko modurik hoberena konpartsak euskalduntzea dela argi dago, haiek ematen baitiete bizia. Edo, konpartsak baino, hobe haien arteko harremana esatea. Hau Pittu Hau, hasiera-hasieratik, konpartsen koordinakundeko bilera eta aktetan euskarak merezi duen lekua izan dezan borrokatu da. Eta horrek euskaldunok errespetuz tratatzea esan nahi du, gutxienez. Zerbait aurreratu da, baina asko dago egiteke. Guk horretan jarraituko dugu.

EUSKARA bihotzean

baina batez ere

AHOAN!!!




HAU PITTU HAU





HAU PITTU HAU 1987 - 2002 15 URTE EUSKARAZ II

MARRAZKILOREN BILARAKAERA




LEHENENGO MARRAZKILO HAU EZ ZEN SEKULA ERABILI, BAINA GURE MASKOTA ZEIN IZANGO ZEN ISLATATZEN DU. HORI BAI EZ GENUEN WALT DISNEYREN MODUKOA NAHI.



MATTIN MARRAZKILARI EUSKALDUNA IZAN ZEN GURE MARRAZKILOAREN AITA. HURA IKUSI ETA BEREHALA BIHURTU ZEN HAU PITTU HAU-ren IKURRA



TXURIBELTZEZKO MARRAZKILOARI KOLEREA EMATEA EZ ZEN MAKALA IZAN ERE. LARANJAZ JANTZITA AGERTU ZEN 1995.eko ASTE NAGUSIAN



URTE PARE BATEZ HONELAKO MARRAZKILOA ERABILI GENUEN. EZ ZEN ITSUSIA BAINA NORTASUNA FALTA ZITZAION

ETA HARREZKEROZTIK EUSKARA BULTZATZEAZ GAIN BESTE GAUZA BATZUEI ERE EGIN DIO



GAUA HELDU ORDUKO.....



3. multzoko marrazkiloa

Ezin da ukatu Bilboko marrazkiloaren habitat naturala Aste Nagusiko gaua dela. Hor lortzen du bere bizitzaren gailurra. Beraz, konta dezagun zer nolako ohiturak eta bizimodua dituen horrelako egunetan.

- Bilboko marrazkiloaren ezaugarriarik garrantzitsuena egarria da, ezin du bizi edan barik, ordubate baino gehiagoz edateari uzten baldin badio, zimurtzen hasten da eta berehala txosna batetara hurbilduko da, dardarka.

- Bigarren ezaugarria hizkuntza da, euskaraz egiten du baina bere berba jarioak eboluzio bitxia dauka, hasieran komunikazioa azkarra eta bizia da, baina gauak aurrera egin ahala mingaina trabatu egiten da eta goizaldean keinu eta orroen bitartez burutzen da dagoen komunikazioa apurra.

- Kanturako zaletasuna, marrazkiloaren ahotsa, salbuespen batzuk kenduta, txarra eta desatsegina da, baina hori ez da eragozpena milaka aldiz "Adiskide bat bazen...." dioen abesti bat errepikatzeke.

- Sexualitateari dagokionez hiru taldetan koka ditzakegu. Lehenari sexua gustatzen zaio baina lehentasuna egarria asetzea denez denbora handiago ematen du eda-ri bila bikotekide bila baino. Bigarrenak, bere bitzta arriskuan ipiniz, edateari uzten dio harremanen baten bila. Hirugarrena bien nahasketa bat da eta edaten duen bitartean sexua bilatzen du, azkeneko hauek lehenengo taldekoei emaitza berdinak lortu ohi dituzte.

-Ohituren artean batzuk oso bitxiak. Batzutan, eta inork jakin barik, beraien kidetako bat txosna baten barra gainetik botatzen dute. Besteetan, ordea, ur katxiak botatzen dizkiote elkarri. Musika hasten denean saltoka hasten dira baina beraien mugimenduak ez dute zerikusirik musikaren erritmoarekin, beraien burmuinetara atzerapenez helduko balitz moduan.

-Santimamineko biztanleen moduan margorako zaletasuna dute eta euskararen egoeraren inguruko margoak egiten dituzte. Preso dagoen elefante bati buruz ere hitz egiten dute beraien delirioetan.

- Istripuak edukitzeko ohitura. Aste Nagusi guztietan marrazkiloaren batek ospitalean bukatzen du, orkatilen bihurketak izaten dira arruntenak baina denetarik egon da, mozketak, kolpeak, eta barikuko entzierroaren ondorioak (hauek ez direla



Papa-mobila baino erosoagoa

Sanferminak eta ez daudela zezenak???, ez dakit nik ba).

Beno, zure bizitzan Aste Nagusi gau batean marrazkilo bat topatzen baduzu bi gauza eduki kontutan: ez hitz egin erdaraz, egundoko txapa emango dizulako, eta ez eman edateko zure katxitik, bera gabe geldituko zarelako.



Konpartsarako egun berezi bat baldin badago, Aste Nagusiko astelehena da. Dudarik gabe, gure konpartsan jende gehien batzen den eguna da. Formula miragarria Bazkaria +

Konpartsero sariak + Play Back txapelketa + Bertsotrikikalejira + Berbena izan da. Aurten, 15. urteurrenaren ospakizunik indartsuenak egun horretan burutuko dira. Oraindik ez dakigu zer egingo dugun, agian mekanotubozko gurdi bat eramango dugu, edo agian Elefantearen aurkako ekintza ikusgarri bat burutu (lasai, Hor Dago, txantxa da eta), edota gaitero talde bat eraman trikitalariekin batera. Agian suhiltzaileei deitu eta bitsa guda bat egin beharko genuke edota antzezlan bat antolatu.

ZORIONAK HAU PITTU HAU

Barazki hutsezko bazkaria aukeren artean dago. Ez, ez dugu horrelakorik egingo, jada egingo dugu-eta, edo agian bai, nork daki. Gauza bakarra da ziurra, egun horretan guztiok dugu konpromezu bat, txosna

aurrean dantzatzea eta saltoka ibiltzea, Zazpi Kaleetatik eta Arenalean, Mari jaiarekin batera, HAU PITTU HAU 15 URTE BETE DITUELA OSPATZEKO.

ZIBER HAU PITTU HAU

Inor gutxik imajinako luke 1987ean, noizbait konpartsakideak egunero ordenagailueren bitartez konektatuta egongo zirela, baina gaur egun honela da. 40 konpartsakide inguruk konpartsaren berriak zuzenean jasotzen dituzte e-posta zerrendaren bitartez. Interneten ere topa daiteke www.haupittuhau.org helbidea. Horrek ez du esan nahi oraindik betiko komunikabideak eralbiltzeari utzi diogunik, gutun eta kartelen bitartez jendeari gure zereginak helarazten jarraitzen dugu-eta.



PARRANDA MITIKOAK


Zaila da 15 urtetan izan diren ehundaka parranden artean batzuk nabarmentzea, baina nonbaitetik hasi behar denez, Ibaizabaletik egiten ziren igoyeretatik hasiko gara. Parranda miragarriak benetan, miraria zen-eta inor ibaira erori ez izana. Gogoratu behar dugu, era berean, Aste Nagusian Negu Gorriak egin zuen kontzertua eta ondorengo merenge guda. Horiek parranda kolektiboak izan ziren, beste batzuk konpartsakide jakin batzuenak. Nola ahaztu Aitor, patxaranez itsu-itsu, kaskodun txakur batekin ligatu nahian, kamiseta altxatzen zuen bitartean oihu sadomasokistak botatzen zituela (kondairak dio mátame, mátame esaten zuela). Peruk, berriz, txupinazo egun baten egundokoa hartu zuen (honarte gutxi gora behera dena arrunt), baina hurrengo egunean besoak jorratuta agertu zen; zurrumurruek "cat-woman"ekin amodioa egin zuela zioten. Jimmi Sarako gaupasa hartan kanping denden artean "Pako nire dendan dago neska batekin", "Denda nirea da", eta holakoak esaten, Kanpik isil-isilik ondoko dendan joko bikoitza egiten zuen bitartean. Indibetik ere eman zituen bere emaitzak: han zebilen Gorka gaueko ilargipean edariak iturritik atera nahian. Bainu ederra hartu zuen linterna eta guzti. Sagardotegietan ere nagusi, behin batean, itzuleran, autobuseko gidaria "ertzantza"ri deitzeaz mehatxatu gintuen, ez zuen potrorik eduki eta extintorerik gabe geratu zen. Talde txikian baina gustora Meñakan ibili ginen aekanpadan; musika 24 orduz jarraian zebilen taberna baten aurrean lo egin behar zen. Oraindik ez dut ulertu nolatan atera zen Joxe Ripiau taldea bizirik Euskal Gunean eman zuen kontzertutik: konpartsa osoa zegoen itsu-itsu, baten batek betaurrekoak eta guzti galdu zituen. Parranda on asko gelditzen dira aipatzeke, baina badakizue: alkoholak amnesia eta gogoratzen ez ditudan beste gauza batzuk eragiten dituela.

BILBOTARRAK EZ DIREN KONPARTSAKIDE HORIEK


Hau Pittu Hauk, argi eta garbi izaera bilbotarra duen konpartsa izanda, badu bilbotarrak ez diren konpartsakideak bereganatzeko dohainik. Zaila da nonbaitetik hastea, eta den-denak gogoratzea... Hor dago Lemoako Hau Pittu Hau-ren kolonia, urteak daramatzate Lemoako neska Aste Nagusira eta beste ekitaldietara etortzen, beti umore onez. Ez dira ahaztu behar Gipuzkoako konpartsakideak: Igor, Uritz, Aitor eta abar... hemen ikusten da bilbotar bat nahi duen lekuan jaiotzen dela. Nola ahaztu lekittarrak, Mari Jaia ikusita Sanantolinak aste batez ahazten dutenak. Iparraldean ere badugu pare bat konpartsakide, agur bat hemendik Jenofarentzako. Eta bukatzeko, Bilbo ingurukoak, Santurtziko Gorka, Erromoko Iñigo (lehendakari ohia) eta PJ, Etxebarriko Peru, Leioako Osoitz, eta nola ez ... Astrabuko Astrabu.

KAMISETAREN HISTORIA

Konpartsaren janzkera aldatu egin da 15 urte hauetan. Konpartsa jaiotzen zirenean Pittu pertsonaiaren janzkera ahalik eta hobekien islatzen saiatu ziren. Hori dela-eta, alkandora gorriarekin batera txano beltz bat zinta gorri batez eta praka ilunak ziren konpartsaren uniformeak. Denboraz, konpartsakideen kopurua handitu egin zen eta, jende guztiarentzako alkondarak egitea zaila eta garestia zenez, kamiseta ateratzea erabaki zen. Lehenengo kamiseta zuria izan zen eta estraineko aldira marrazkiloa ageri zen, aurrealdean; atzealdean, berriz, "EUSKARA BIHOTZEAN BAINA BATEZ ERE AHOAN" leloa. Kamiseta hau urtebetez (1994an) erabili zen eta 1995ean gaur egungoa sortu zen. Mattinek, Egunkariko marrazkilariak, egindako marrazkiloari kolore laranja eman eta more koloredun kamisetan plantatu genuen. Kontua ez da hor gelditu,



Hamaika parrandatan ibilia da kamiseta morea



Ibaizabalean gora

azkeneko asanbladetan kamisetari aldaketa batzuk egitea erabaki baitzen (tirantedun kamisetak eta abar).



MENDEKU TXIKI

ELEFANTEA
askatu!

Moro: Ez duzu uste nahiko heldua zarela ondino GEIPERMANekin jolasean ibiltzeko?	Zalao: Zure Sanpankrazioa meza beltzak egiteko erabili genuen, orain Antikristoaren jarraitzailea da. HPH antiklerikal taldea.	Eguzkiko Sonia: "eskaker" ezizena dagokizu, azkenaldi honetan parranda bat ere ez duzulako egin. Neska txintxo bihurtzen ari ote? Sorginen Biltzarra.	ESPAINAN BAGENUEN NONBAITEN KAUDILLO TA ESATEN GENION CORRE QUE TE PILLO, BAINA GAURKOAN ERE IZAN BEHAR PILLO, HAU PITTU HAU-n CAUDILLO DAUKAGU KANPILLO
Hau...Hau erredakzio taldea, ez duela gure lurrean zentsurak funtsionatzen? Ja!! Zuek bai faxistak! Sorginen biltzarra eta EHko zentsura ta gehiegikerien aurkako komiteak.	Konpartsakide batzuk ez zineten mamuz mozorratu behar, nahiko fantasma zarete eta. Simpatiaren aldeko komitea.	Jimmi-Gabatxin, MATXOTE bat zara. Sin.: F. Gonzalez	Santutxuko neska gazte kuadrilla-ri, izaera errepublikarra duen konpartsa batetan « p r i n c e s i t a z » mozorrotutak?????. Badakigu Felipe de B. libre dagoela baina uste dut ez duela zuekin ezer gura.
Inma. baina zer egiten diozue gure Aitorri?. Gero eta makalagoa dabil, argalduz doa pixkanaka pixkanaka eta aurpegiko kolorea ere falta zaio. Emaiozu botika gehiago eta beharrezkoa denean "jarabe de palo"	Rubia, zergatik datorren Aste Nagusian ez dugu «a la canción» jolasten. Sin.: Kinitozaleak	Astrabu: Utzi Paketan Futbol Zelaletako Marrak. Sin: Melapela	Txomin, zurrumurruek diote zerikusia zenuela Elefantearen «affaire»rean. Perrete. OSO ONDO GUDARI
Campillo, benetan zu membrillo. Lekeitioko kimuak	Konpartsa osoari: ¿Y aquí cuando se come?. Sonia Eguzki, auzokide aserretua	Herri atera Moro noizbait bueltatxo bat ematen, badakigu ez duela bozalik ipini nahi baina sokarekin ondo lotzen baduzu uste dut ez diola inori koxka egingo.	Miren, zer Coca Cola light-etatik Gipuzkoako Sagardora, zelako aldaketa. Hori bai beti euskal produktuen alde.
Patri (La Navarra): Zure ETXEKO kir-ATXA gure ZOCOrak ekarru zenuenetik gure bizitzan ez dago LAS ENDRINASik. Sin.: Kalimotxozaleak	Peru: non dekozu katua? Zoofilia komandoa.	AMAGOIA (WOLFI) ISILIK	Mariñe, Guantanamo tiene un son....., zer aurten ere Kubara Aste Nagusian???, ez egin Mari Jaia-ri holakorik.
Pittu, Piriniotako Artza Handiaren zurrunkak zure zurrunkekin alderatuta ez dira ezer, txo... Iruñako kaltetuak.	Irantzu, ez abusatu. Zentsura Batzordea.	Zalao pozten garete zuek. Bazen garia!!!. Osoitzi ez diogu ezer esango Sin.: Melapela eta Izar.	Gabi, ziberbertsotrikixalapa partatxistukalejira, antolatuko dugu eta bertan lanbada ikastaro bat. Musikaren mestizajearen aldeko komitea.
Jimmiaren bizkarzainen bila gabiltza, Ollerias Brigada izenekoan sartu nahi baduzue izena eman Boris Izagirregoitiari.	Jon Rubioren bularraren benetazko nehurriak baditugu, badirudi Coca-Cola Light-en spotearen sekretaria guztiak guztiz txorabiarik daudela eta hona bizitzera etorri nahi dutela, AEK-an apuntatuz eta guztiz. Sin.: Boris Izagirregoitia	Asmakizuna: Nor da «Pelo Loba»????	Kike, ze esanten dizute bezeroak????, egque Valdemoro eg mu bonito. Tintatu ilea eta ipini kamiseta eta ikusiko dituzu zelako farreak sukursalean.
Aitor. Zelan sentitzen zara gu guztion aitona izanda?Laister baten gaztainak jateko eta konpartsakide berriei beldurrezko ipuinak kontatzeko gai baino ez zara izango.	Iurgi: Pitxurrina naiz. Kontzertua bukatu ondoren zure zain egon nintzen. Agertu ez zinenez, beste mutil batekin joan nintzen. Orain, benetako gizon bay zer den badakit. Ah! ez deitu etxera mesedez.	Gure Paketito Noizko??. Pakoren ama, amama bihurtzeko aldeko komitea.	
Koldoren partez: Ni ez naiz Koldito, fale!	Koldito molotov. Lekittar "incendiario" bat zara. Pasatzen zaren edonondik sua pisturik uzten duzu. Bilboko suhilitaileak eta txikerra.	Pako, Aste Nagusian Konpartsaren txandetaz eskakeatzen, ala?????. HPH txandalariek.	
Ai Nikaragua Nikaraguita, hoy voy a salir a por ti. Zer Hau Pittu Hauren Play Back-ak erdera hutsean?	Taliban taldea	JIMMI KANPORA (HPH Kritikoak)	
Maddalen eta Amagoia: Aizkora eta sugea ez da atzurra eta legatzaren berdina. Sin.: Boris Izagirregoitia	Aidra eta Galizia (Algara) A ze pareka karakola eta barea, bata mozkortia eta bestea mozkorzalea. Txikerra	Tas: Dantza ikastaro bat oparitu dizut, Koktel Molotov botatzeko era hobetzeko. Sin.: Zure dantzaldien kaltetua	
		Pittu: Izurtzan «Basurdearen leienda» egia zela egiaztatu nuenetik ez dut berriro lehengo moduan lorik hartu. Sin Gabatxin.	
		Jimmi, Matxote, Gabatxin, «San Miguel»-aren modukoa zara, NORA JOAN GARAIPENA. Sin.: Basurde	
		TodoWoman, zu bai bezero ona zarenez zurito bat gatzagaz hartzeko konbidatuta zaude. Bilboko Gatza saltzaileak	



HAU PITTU HAU 1987 - 2002 15 URTE EUSKARAZ 15




IZAN ZAITEZ

HAU PITTU

HAU-ren KONPARTSAKIDE



**HAU PITTU HAU-ren KIDE
IZATEKO:
DEITU 944162730 TELEFONORA
EDO IDATZI:
posta@haupittuhau.org
HELBIDERA.**



Hau Pittu Hau

Bilboko Aste Nagusian festak ondo pasatzeko eta erderatik pasoa egiteko antolatu dugu konpartsa berri bat: "Haupttuhau" ("jaupittujau" ahoskatu bestela izenak ez du graziarik eta).

Konpartsa euskalduna dugu hau eta ipiniko dugun txosnan euskaraz baino ez dugu atendituko. Erdaldunentzat hiztegitxo bat ipintzeko asmoa dago, nahi baldin badute ezer eskatu, geure hizkuntzaz egin dezaten.

Orain arte zoritxarrez euskararen presentzia eta erabilpena festetan guztiz sinbolikoa izan da, konpartsen izena besterik ez, ekitaldiak, konpartsen bizitza ... erdara hutsez direlarik.

Egoera honen aurrean espazio, giro, ekintza euskaldunak lortu behar ditugulakoan gaude eta horretarako bidezkoena hauttuhau honetan parte hartzea dute bilbotarrek.

Gure konpartsaen zereginak ez ditugu mugatu behar festetara soilik. Urtean zehar beste honakoak egiteko asmoa era badugu: xake txapelketak, afariak, mendi irtenaldiak, Ibilaldira eta holakoetara txangoak....

Aste Nagusian hauttuhautu gurekin eta ikusiko duzu ze ondo pasatzen dugun

Bilbo, 1987/7/6